



## IRAGARKIA

### **Elorrioko Udalak 2026ko kultur elkarteentzako dirulaguntza deialdia onartzea (2026-00530 espedientea)**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko apirilaren 17an egindako bilkuran, 2026ko kultur elkarteentzako udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2026ko apirilaren 20a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



## ELORRIOKO UDALAK 2026KO KULTUR ELKARTEENTZAKO EMATEN DUEN DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

Elorrioko Udalak Dirulaguntzen Oinarri arautzaileak onartu zituen 2008ko abenduaren 18an batutako Udalbatzaren Ohiko saioan (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 9an argitaratutakoak). Oinarriek honako aldaketak izan zituzten: lehenengoa, Udalbatzak 2010eko otsailaren 11n onartu zuena (eta BAOn maiatzaren 10ean argitara emana) eta bigarrena, Udalbatzak 2011ko abenduaren 28an onartutakoa (BAOn 2012ko otsailaren 10ean argitaratutakoa).

Horiei eta Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoari jarraiki, dirulaguntzak eskatzeko deialdia egiten dut, ondoko oinarrien arabera.

### 1. HELBURUAK ETA DOTAZIOAK

Deialdiaren helburua: Elorrioko Udalak 2026 urtean diruz lagunduko dituen kultur arloko proiektuen prozedura arautzea.

Dirulaguntzaren helburua:

**“a” motako helburua** da kultur ekintzak egiten dituzten Elorrioko kultur elkarten 2026 urteko ohiko jarduera laguntzea eta sustatzea. Horretarako 15.000,00 euroko diru-izendapena dago 3300.481.03 (Kultur taldeentzako ohiko dirulaguntzak) udal aurrekontuetako diru-atalean.

**“b” motako helburua** da horiek edo beste kultur elkarte batzuek egin ahal dituzten ez-ohiko jarduerak laguntzea. Horretarako 10.000,00 euroko diru-izendapena dago 3300.481.06 (kulturako ezohiko dirulaguntzak) udal aurrekontuetako diru-atalean.

“a” eta “b” kasuetan kulturarekin zerikusi zuzena duten jarduerak dira diruz lagun daitezkeen bakarrak.

Aurrekontu-atal horiek diruz hornitu daitezke, behar izanez gero, hartarako beste deialdirik egin behar izan barik.

### 2. ONURADUNAK

Dirulaguntza hauek kultur elkarteei zuzenduta daude.

“a” motako dirulaguntzen onuradun izan daiteke Elorrioko Udalaren Elkarten Udala Erregistroan izena emana duen edozein kultur arloko elkarte.

“b” motako dirulaguntzen onuradun izan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean irabazasmorik gabeko kultur elkarte moduan izena emanda egon eta Elorrioko ekitaldiak antolatzen dituenak.

Halaber, onuradun izateko debekua dute:

- 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Orokorra, 13. artikuluan edo Dirulaguntzen Udala Ordenantza Orokorra 10. artikuluan dituen egoeretako batean edo hauetako debekuren batean daudenak.
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen



berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, xedatzen diren betebeharrak betetzen ez dituztenak.

- Administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik egiteagatik zehapen irmoa jaso duten elkarteak.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa dutenek, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean daudenek, Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.
- Kideak onartzeko prozesuan edo bere funtzionamenduan sexu-arrazoiengatik diskriminazioa egiten duten elkarteak.

### 3. EPEAK

Eskariak aurkezteko epea honakoa da:

- “a” motakoak: maiatzaren 22ra arte (barne).
- “b” motakoak: urriaren 30era arte (barne).

Epeok deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko dira.

Dirulaguntza zuritzeko epea 2027ko otsailaren 28ra arte (barne) izango da.

### 4. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

Emango den kopurua izango da, gehienez, inbertsioen kasuan, aurrekontuaren %30 gehienez, eta ekintzen kasuan aurrekontuaren %70 gehienez. Urteurrenak edo antzekoak ospatzeko egitasmoetan, dirulaguntza, gehienez, onartutako gastu garbiaren %50 izango da, 3.000 euroko gehienezko mugarekin elkarte bakoitzarentzat.

Ez da diruz lagunduko ez senidetasun ekitaldietako gasturik (otorduak, esaterako) ez eta elkartearen helburuarekin zerikusirik ez duten bidaiarik ere.

Jarduera bati egotzi ezin zaizkion funtzionamendu-gastu orokorrak ez dira finantzatuko, esaterako: posta-zerbitzua mantentzea, material suntsikorra, banku-komisioak eta antzekoak.

Eskarien arteko hurrenkera (kreditua nahiko bada, hurrenkerarik ez egitea erabaki ahal izango da) irizpide hauen arabera egingo da eta elkarteei irizpide eta baremo hauen arabera puntuazioa emango zaie:

a. Proposatutako egitarauaren ezaugarriak: Gehienez 65 puntu, honako hauek kontuan hartuko dira:

- Ekimenaren interesa: 35 puntura bitarte baloratuko da, honako hauek kontuan hartuta: Departamentuaren helburuekin bat etortzea, partehartzaileen kopurua, aurreikusitako eragina, egitasmoaren berrikuntzak, nori zuzendua dagoen, egitasmoaren eskarmentua



(zenbat edizio) eta beste elkarte edo entitateekiko elkarlana.

- Diruz lagundutako jarduerako emakume onuradunen kopurua eta portzentaia –onuradun guztiekin konparatuta–. 2,5 puntura bitarte.
- Erakunde onuradunaren zuzendaritza-lanpostuetako emakumeen kopurua eta portzentaia. 2,5 puntura bitarte.
- Egitasmoaren diseinuaren kalitatea 10 puntura bitarte baloratuko da, honako hauek kontuan hartuta: espero diren emaitzak aipatzea, erabiliko diren ebaluazio tresnen egokitasuna, hedapena egiteko bideak (bai prentsan bai herrian) eta teknologia berrien erabilera.
- Zeharkako gaien trataera. 15 puntura bitarte baloratuko da, honakoak kontuan hartuta: euskararen erabilera, 13-35 urte bitarteko publikoari zuzenduta egotea, partehartze anitza bilatzea, ingurugiroaren zaintza sustatzeko helburua izatea eta genero ikuspegia txertatua izatea (3 puntu zeharkako gai bakoitza).

b. Elkartearen ezaugarriak. 20 puntura bitarte baloratuko da, honako hauek kontuan hartuz:

- Elkartearen eskarmentua horrelakoak antolatzean, elkartearen partehartzea Udalaren programazioetan (Ferixa Nausikoak, Gabonak eta Erregeak, Inauteriak, e.a.) edo bestelako elkarrekintzak ematea, 10 puntura bitarte.
- Elkartearen izaera (alor horretako bakarra izatea, kideen inplikazioa, ipintzen dituen kartelak kentzea, gizonezko eta andrazko kideen arteko oreka,...) 10 puntura bitarte.

c. Beste irizpide batzuk.

- Jarduera administratibotik antolatzeko zaila izatea 5 puntura bitarte.
- Elkartearen autofinanziazioa: 4 puntu %30etik gorakoa bada, 8 puntu %40tik gorakoa bada, eta 10 puntu %50etik gorakoa bada.

## 5. ESKARIAK

Telematikoki aurkeztuko dira, [www.elorrioko.eus](http://www.elorrioko.eus) helbidean dagoen plataformaren bidez eta honako dokumentu hauek erantsiko dira:

- I. eranskina: eskari inprimakia, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Sexu-delituen ziurtagiria, adin txikikoekin jarduerak egiten dituzten pertsonena.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ez dira aurkeztu beharko, baldin eta Elorrioko Udalar horiek lortzeko baimena ematen bazaio.
- Hirugarrenen alta behar bezala beteta. Agiri hau paperean edo online egin daiteke. Agiri hauek ez dira aurkeztu behar izango aurreko urteetan Elorrioko Udalak egindako deialdietan aurkeztu badira, beti ere, agiri horiek edo agirietako datuak aldatu ez badira.

<https://www.elorrioko.eus/eu-ES/izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

- “b” motako dirulaguntza eskaria egiten duten elkarteek, Elorrioko Elkarte Udal Erroldan erregistratuta ez badaude, Eusko Jaurlaritzaren dagokion erroldan izena emanda daudela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute.

Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta



baimena ematen dio Elorriko Udalari beharrezko egiaztapenak egiteko.

## 6. INSTRUKZIOA ETA ERABAKIA

Eskariak aurkezteko epea amaituta, eskariak aztertuko dira eta, dokumentazioa falta izanez gero, premiazko eskea egingo zaie elkarte interesdunei hamar eguneko epean falta den dokumentazioa aurkez dezaten. Eta jakinaraziko zaie okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

Epe horren ostean, udal teknikariek eskariak aztertuko dituzte eta informazio batzordeak dagokion irizpena emango du. Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi egingo du.

Dirulaguntzen instrukzio organoa osatuko dutenen arteko genero parekidetasuna egongo da. Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kidetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek %40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean dela ulertzen da.

Erabakia emandakoan, horren berri emango zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek aurreikusten dutena jarraituz.

Emandako dirulaguntza onartzen dela ulertuko da.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatze aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatze Bilboko dagokion auzitegian. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

## 7. BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauek, helburu bera duten beste administrazio edo ente publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoak, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada dirulaguntzen ezaugarriak ikusita kontrakoa ondorioztatu eta bateragarria ez izatea. Edozein modutan, proiektuaren gastua izango da dirulaguntzaren topea.

## 8. PUBLIZITATEA

Elkarte onuradunek Elorriko Udaletik jasotako dirulaguntzaren publizitatea egingo dute uztailaren 21eko 887/2006 EDak, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra garatzen duen Ordenantzak, aurreikusten duenari jarraituz.

Horretarako, onuradunek honela emango dute Udalaren dirulaguntza jaso izanaren berri:

- kartel eta eskuorrietan: Udalaren eskudoa agertuko da ekimenaren babesle dela adieraziz.
- elkarrizketa, aurkezpen edota beste edozein agerraldi publikotan ere ekimenak Udalaren dirulaguntza jaso duela aipatu beharko da, berdina da agerraldia ahoz zein idatziz egin.

Ulertzen da derrigorrezko publizitate honek dirulaguntzaren %10eko balioa duela. Beraz, esandako moduan publizitatea egin ezean, esandako ehunekoa itzultzeko eskatuko da.



## 9. ORDAINKETAK

Erabakia ematean, onuradunei %65 ingresatuko zaie. Gainontzeko %35 zuriketa egindakoa kobratuko dute.

## 10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- 4/2005 Legean eta 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.
- Diruz lagundutako jarduera orok komunikazio inklusibo erabiliko du, non ez diren erabiliko pertsonak sexu, genero, jatorri edo bestelakoengatik umiliatu, degradatu edo estereotipatzen dituzten irudiak edo idatzizko beste edozein komunikazio-elementu. Pertsonen aniztasuna irudikatzen duten irudiak eta hizkuntza bultzatuko dira.
- Hasierako proiektuan zein justifikazio-memorian informazio hau jasoko da: generoaren arabera bereizitako onuradunen gutxi gorabeherako kopurua eta horien profila (adina, dibertsitate funtzionala duten pertsonak... edo beste datu interesgarri batzuk).
- Ekitaldi publiko guztietan euskararen presentzia bermatuko da ekitaldietan bertan, publizitatean, aurkezpenean, agurrean eta abarretan, indarrean den Elorrioko Udalaren Euskararen ordenantzak 34. artikuluan arautzen denaren arabera. Horretarako, kontuan hartuko dira ekitaldiaren helburuak, gaiak, eragin soziala, hartzaile edo entzule potentzialak eta erabili edo banatuko den materiala.
- Erabiliko den material guztietan estereotipo sexistak edo emakumeak diskriminatzen dituen adierazpenik ez agertzea.
- Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokaera transhomofobikoa saihesteko eta arreta egiteko neurriak izango dituzte.
- Dirulaguntzak oinarri duen helburua lortzea, proiektua burutzea, jarduera egitea edo portaera hartzea.
- Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta dirulaguntzak oinarri duen jarduera bete dela eta helburua lortu dela ziurtatzea.
- Kontroleko organo eskudunek egin ditzaketen egiaztatze eta kontrol finantzarioei men egitea, horretarako beharrezko informazio gutzia aurkeztuz.
- Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako dirulaguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea.
- Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, jasotako funtsei emandako aplikazioa egiaztatu aurretik.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken merkataritzarako eta sektoreetarako legeek exijitutako baldintzen arabera, behar bezala, ikuskatutako kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta gainerako agiriak edukitzea, eta dirulaguntzen oinarri erregulatzailerik eskatutako kontabilitate egoerak eta erregistro zehatzak izatea, egiaztatze eta kontroleko ahalmenak modu egokian garatuko direla bermatzeko.
- Jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontroleko jarduerak aurrera eraman ahal izateko.
- Dirulaguntzen deialdian ezarritako hedatze-neurriak hartzea, dirulaguntzak helburu duen proiektua, jarduera edo portaera Elorrioko Udalaren kolaborazioarekin edota finantzazioarekin burutu dela jakinarazteko.
- Jasotako funtsak itzultzea Arau Erregulatzailerik 42. artikuluan ezarritakoari jarraiki.



## 11. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Dirulaguntzak itzultzeko, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aintzat hartuko da

Edozelan ere, jasotako zenbatekoa itzuliko da justifikatzeko agiririk aurkeztu ez denean, edo behar moduan justifikatu ez denean. Dirulaguntzaren zati bat justifikatu ez denean, dagokion zatiari eragingo dio itzulketak. Bardin egingo da gainfinantzaketa dagoela egiaztatzen bada dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan.

## 12. ZURIKETA

2027ko otsailaren 28a baino lehen, onuradunek dokumentazio hau formatu digitalean aurkeztu beharko dute:

- a. Ekintza bakoitzaren txostena. Honetan, betetze-maila, ekintzari emandako hedapena, arrakasta, partehartzea, e.a.... adieraziko dira.
- b. Publikazioak eta kartelak, esku-orriak e.a. ale bana.
- c. Diru-sarrera eta gastuen gaineko zerrenda, burututako ekintza bakoitzeko.
- d. Jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak.
- e. Ekintza bererako beste dirulaguntza pribatu edo publikoak ez direla jaso adierazten duen aitortpena.
- f. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ez dira aurkeztu beharko, baldin eta Elorrioko Udalar horiek lortzeko baimena ematen bazaio.

## 13. DATU-BABESA

Apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eskatzaileari jakinarazten zaio emandako datu pertsonalak honela tratatuko direla:

Arduraduna: Elorrioko udala – [dpo@elorrio.eus](mailto:dpo@elorrio.eus) / Datuen babeserako ordezkaria: Elorrioko Udaleko idazkaria [dpo@elorrio.eus](mailto:dpo@elorrio.eus)

Helburua eta datuak gordetzeko epeak edo irizpideak: Dirulaguntzak izapidetzea.

Legitimazioa: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorretik eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorretik eratorritako legezko betebeharra.

Kontserbazioa: Datuak gordeko dira aipatutako helburua betetzeko behar den denbora zehatz-mehatz, eta, edozein kasutan, aplikatu beharreko artxibo-araudiak ezartzen duena errespetatuz.

Hartzaileak: Ez zaie daturik emango hirugarrenei, salbu eta legeak hala agintzen badu.

Eskubideak: Pertsona eta elkarte eskatzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, haien aurka egiteko edo eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, Elorrioko Udalaren erregistrora edo datuak babesteko ordezkariaren helbide elektronikora jo beharko dute, idatziz ([dpo@elorrio.eus](mailto:dpo@elorrio.eus)). Eskabidean, eskatzailearen nortasuna egiaztatu beharko da.

Era berean, erreklamazio bat aurkez daiteke Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.



Informazio gehigarria: <http://www.elorrio.eus>

#### 14. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Deialdi honetan aurreikusi ez den guztirako, honako hauek aplikatuko dira:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa (DLO)
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (DLO), Elorriko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza eta dirulaguntza publikoak eta administrazio-prozedura arautzen duten toki-araubideko gainerako legeak
- Elorriko Berdintasunerako Ordenantza (2023ko azaroaren 25ean Osoko Bilkuran onartuta)
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.

#### 15. ELKARRERAGINGARRITASUNA

Elorriko Udalak dokumentuak eta informazioa eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei, elkarreragingarritasunaren esparruan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua arabera. Horren helburua da eskatutako dirulaguntzen kudeaketa erraztea eta administrazio-izapideen eraginkortasuna bermatzea.

Udal honek beste administrazio batzuetan norbere datuak eta dokumentuak kontsulta ez ditzan eskubidea du eskatzaileak. Eskubide horretaz baliatzea erabakitzen badu, behar bezala arrazoitutako idatzia egin behar du, eta zergatia adierazi. Behar den moduan arrazoitu gabeko erabateko ezetzik ez da onartuko.

Datuak eskatzearen aurka egiteko idatzia dirulaguntzak eskatzeko epean aurkeztu behar du.

Oposiziorako idatzian honako datu hauek zehaztu behar ditu behintzat, eskatzaileak:

- Eskatzailearen datuak.
- Zer dokumentu edo datuei egiten dien aurka zehaztu.
- Informazioa kontsultatzearen aurka egiteko arrazoiak adierazi eta haien justifikazioa.

Eskatzaileak baliozko oposizio arrazoitua aurkezten badu, Administrazioak oposizio hori ebaluatuko du, eta erabakiko du ea egokia den beste administrazio batzuei dokumentuak eskatzen jarraitzea. Oposizioa ezesten bada, dirulaguntza izapidetzeko behar den informazioa eskatuko da.

Dirulaguntzen eskaerak sinatzeak berekin dakar dirulaguntzaren oinarrietako baldintzak onartzea, eta dokumentuak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea aitortzen du, bai oposizio hori dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epearen barruan modu arrazoituan aurkezteko betebeharra ere.

Arestian adierazitakoa gardentasunaren eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak arautuko du, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak eta (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.